

## 1. zerrenda

Gipuzkoako Lurralde Historikoari eskualdatzen  
zaizkion ondasunen zerrenda

Ibilbidea Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barruan egiten duten Bizkaiko Golkoko A-8 (Bilbao-Behobia) autobideko zatiak. Guztira 69,49 kilometro dira, eta bide-saririk gabeko tarte batek bi zatitan banatzen du, Donostiako saihebidetarikoa, hain zuzen ere.

Lehenengo zatiak 17,4 kilometroko luzera du guztira; 0,090 kilometro-puntutik hasten da, Frantziarekiko muga ondoan dagoen Behobiako nazioarteko zubian, eta Donostiako Intxaurren auzoan amaitzen da, 17,490 kilometro-puntuan.

Bigarren zatiak 52,09 kilometro ditu guztira; 22,760 kilometro-puntuan hasten da eta Gipuzkoako Lurralde Historikoak Bizkaiko Lurralde Historikoarekin muga egiten duen gunean amaitzen da, 74,85 kilometro-puntuan.

## 2. zerrenda

2000 ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegorako  
urteko guztizko kostua, errepideak lurralde  
historikoei eskualdatzearen ondorioz

## 11. atala.- Garraio eta Herri Lanak

	Pezetak
Ikuskaritza teknikoa	120.374

**JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA  
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA****Zk-5850**

262/2000 DEKRETUA, abenduaren 19koa, giza zerbitzuen eta sorospenaren alorrean Itsas Gizonentzako Gizarte Institutuari (IGGI) esleitutako zeregin eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeetatik Bizkaiko lurralde Historikora transferitzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatu-tua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10. artikuluko 12. puntuak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku uzten ditu, oso-osorik, gizarte-sorospenaren alorreko eskumen guztiak.

## Relación número 1

Relación de bienes que se traspasan al Territorio  
Histórico de Gipuzkoa

Tramos de la Autopista A-8 del Cantábrico (Bilbao-Behobia) cuyo itinerario se desarrolla en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, con una longitud total de 69,49 kilómetros y dividido en dos tramos entre sí por uno libre de peaje, la llamada variante de San Sebastián.

El primer tramo desde el punto kilométrico 0,090 junto al puente internacional de Behobia en la frontera francesa, hasta el punto kilométrico 17,490 en el barrio de Intxaurren en San Sebastián, con una longitud total de 17,4 kilómetros.

El segundo tramo, desde el punto kilométrico 22,760 hasta el punto kilométrico 74,85, límite del Territorio Histórico de Gipuzkoa con el Territorio Histórico de Bizkaia, con una longitud total de 52,09 kilómetros.

## Relación número 2

Coste total anual para la Comunidad Autónoma del  
País Vasco en el ejercicio 2000 asociado al traspaso a  
los Territorios Históricos

## Sección 11.- Transportes y Obras Públicas

	pesetas
Inspección Técnica	120.374

**VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL****Nº-5850**

DECRETO 262/2000, de 19 de diciembre, de traspaso desde las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Bizkaia de las funciones y servicios en materia de Asistencia y Servicios Sociales, encomendada al Instituto Social de La Marina (I.S.M.).

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, en su artículo 10, número 12, establece la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de asistencia social.

Bestalde, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.C)1 artikulua araberako, gizarte-sorospenaren alorrean Erkidego osorako erakundeek egindako legeria gauzatzeko eskumena foru organoek dute, zeinek bere lurraldean, burutu ditzaten zuzeneko egintzak eragotzi gabe. Ildo beretik, lurralde historikoetako foru-organoei arlo horretan dagozkien eskumenak Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 legearen 11. artikuluan eta horrekin bat datozenetan daude jasota.

Eskumenak horrela banatu behar direnez eta Itsas Gizonentzako Gizarte Institutuak ematen dituen gizarte zerbitzuen eta sorospenaren alorreko zereginak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari transferitu zaizkionez, 27/1983 Legearen Lehenengo Xedapen Iragankorrean ezartzen den Bitariko Batzordeak zehatz-mehatz finkatu du zeintzuk diren IGGiak gizarte zerbitzuak eta sorospena emateko behar dituen zerbitzuak, giza-baliabideak, ondasunak, eskubideak eta obligazioak; beti ere, Erkidego osorako erakundeen eta Bizkaiko lurralde Historikoaren arteko zerbitzu-aldaketak nola egin behar diren arautzen duen ekainaren 19ko 195/1984 Dekretuan xedatutakoaren arabera. Horri buruzko erabakia 2000ko abenduaren 14an egindako osoko bilkuran hartu zuen.

Ondorioz, 27/1983 Legearen Lehenengo Xedapen Iragankorrean xedatutakoarekin bat, Jaurlaritzaren lehendakariordearen eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren baterako proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko abenduaren 19an egindako bilkuran erabaki ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

**1. artikulua.**— Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeak hartutako erabakia onartzea. Erabaki hori 2000ko abenduaren 14an hartu zuen Batzordeak, osoko bilkuran, IGGiak ematen dituen gizarte zerbitzuen eta sorospenaren alorrean Bizkaiko Lurralde Historikoak dituen eskumenek hartzen dituzten zerbitzuak, giza-baliabideak, ondasunak, eskubideak eta obligazioak zehazteko. Erabakia Jaurlaritzaren Dekretu honen eranskinean dago jasota.

**2. artikulua.**— Ondorioz, Bizkaiko Lurralde Historikoari transferitzen zaizkio Erabakian zehazten diren zerbitzuak —bertan zehazten diren eran eta baldintzetan— eta Erabakian eta eranskineko zerrendetan aipatzen diren giza-baliabideak, ondasunak, eskubideak eta obligazioak.

**3. artikulua.**— Bitariko Batzordearen Erabakian zehaztutako egunetik aurrera izango du eragina transferentzia honek.

**4. artikulua.**— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta dagokion fo-

Por otra parte, la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, atribuye a estos últimos, en su artículo 7.C)1 la ejecución dentro de su Territorio de la legislación de las Instituciones Comunes en las materias de asistencia social, sin perjuicio de la acción directa de éstas. En el mismo sentido, la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, contempla, en su artículo 11 y concordantes, las competencias que en esta materia corresponden a los Órganos Forales de los Territorios Históricos.

En atención a la señalada distribución de competencias, y habiéndose producido el traspaso a la Comunidad Autónoma del País Vasco de las funciones y servicios en materia de asistencia y servicios sociales, prestados por el Instituto Social de la Marina, la Comisión Mixta establecida en la Disposición Transitoria Primera de la mencionada Ley 27/1983, ha procedido según lo dispuesto en el Decreto 195/1984, de 19 de junio, por el que se aprueban las normas de traspaso de servicios entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y el Territorio Histórico de Bizkaia, a concretar los servicios, medios personales, bienes, derechos y obligaciones correspondientes a la asistencia y servicios sociales prestados por el I.S.M., adoptando al respecto el oportuno Acuerdo en su sesión del pleno celebrada el 14 de diciembre de 2000.

En su virtud, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Transitoria Primera de la citada Ley 27/1983, a propuesta conjunta de la Vicepresidenta del Gobierno y del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, y previo Acuerdo del Consejo de Gobierno en su reunión del día 19 de diciembre de 2000.

#### DISPONGO:

**Artículo 1.**— Aprobar el acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias Gobierno Vasco—Excma. Diputación Foral de Bizkaia por el que se determinan los servicios, medios personales, bienes, derechos y obligaciones correspondientes a las competencias del Territorio Histórico de Bizkaia en materia de asistencia y servicios sociales prestados por el I.S.M., adoptado por el pleno de dicha Comisión en su reunión del 14 de diciembre de 2000, que se transcribe como Anexo del presente Decreto de Gobierno.

**Artículo 2.**— En consecuencia, quedan traspasados al Territorio Histórico de Bizkaia los servicios que se relacionan en dicho Acuerdo, en los términos y condiciones resultantes del mismo, y los medios personales, bienes, derechos y obligaciones señalados en el texto del Acuerdo y relaciones anexas.

**Artículo 3.**— El presente traspaso surtirá efectos a partir de la fecha establecida en el Acuerdo de la Comisión Mixta.

**Artículo 4.**— Este Decreto será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, insertándose a su vez el co-

ru-dekretua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Aldizkari bietan argitaratzen diren egunean jarriko dira indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko abenduaren 19an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,  
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

### ERANSKINA

Eusko Jaurlearitzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeko idazkari Sabino Torre Díez jaunak hauxe

#### EGIAZTATZEN DU:

Giza zerbitzuen eta sorospenaren alorrean Itsas Gizonentzako Gizarte Institutuak dituen zeregin eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeetatik Bizkaiko lurralde Historikora transferitzeko erabakia 2000ko abenduaren 14an hartu zuela Batzordearen osoko bilkurak. Hona hemen zehaztasunak:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoaren eskumenak giza-sorospenaren alorrean.

Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.C)1 artikulua arabera, gizarte-sorospenaren alorrean Erkidego osorako erakundeek egindako legeria gauzatzeko eskumena foru organoek dute, zeinek bere lurraldean, burutu ditzaten zuzeneko egintzak eragotzi gabe. Ildo beretik, lurralde historikoetako foru-organoei arlo horretan dagozkien eskumenak Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 legearen 11. artikuluan eta horrekin bat datuzenetan daude jasota.

Arau horien arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoak baditu gizarte zerbitzuen eta sorospenaren alorreko eskumenak. Beraz, erabaki honen bitartez, horiek gauzatzeko giza-baliabideak eta baliabide materialak eskuratu dituzte.

b) Transferitzen diren zerbitzuak eta erakundeak.

IGGIari dagozkion gizarte zerbitzuak eta sorospena emateko behar diren zereginak eta zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-organoei hartuko dituzte beren gain, lurralde horri dagokionez; beti ere, Estatuak eta Autonomia Erkidego osorako erakundeek ditzuten eskumen, zeregin eta jarduerak eragotzi gabe. Estatuari dagozkionak arau hauetan daude jasota: IGGIak ematen dituen gizarte zerbitzuei eta sorospenera

respondiente Decreto Foral en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Bizkaia, entrando en vigor el mismo día de su publicación en dichos Boletines.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de diciembre de 2000.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Vicepresidenta del Gobierno,  
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

### ANEXO

Don Sabino Torre Díez, Secretario de la Comisión Mixta de Transferencias Gobierno Vasco-Excma. Diputación Foral de Bizkaia,

#### CERTIFICA:

Que en el Pleno de la Comisión celebrado el 14 de diciembre de 2000, se acordó el traspaso desde las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma a los Órganos Forales del Territorio Histórico de Bizkaia de las funciones y servicios en materia de asistencia y servicios sociales prestados por el I.S.M., en los términos siguientes:

a) Competencia del Territorio Histórico de Bizkaia en materia de Asistencia Social.

La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, atribuye a estos últimos en su artículo 7.º.C.1 la ejecución, dentro de su territorio, de la legislación de las Instituciones Comunes en materia de asistencia social, sin perjuicio de la acción directa de éstas. En el mismo sentido, la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, contempla, en su artículo 11 y concordantes, las competencias que en esta materia corresponden a los Órganos Forales de los Territorios Históricos.

Con arreglo a dichos preceptos, el Territorio Histórico de Bizkaia tiene competencia en materia de asistencia y servicios sociales, por lo que mediante el presente Acuerdo asume los medios personales y materiales para su ejercicio.

b) Servicios e Instituciones que se traspasan.

Los Órganos Forales del Territorio Histórico de Bizkaia asumen, con referencia a su ámbito territorial, las funciones y servicios correspondientes a la asistencia y servicios sociales prestados por el I.S.M., sin perjuicio de cuantas competencias, funciones y actuaciones corresponden tanto a la Administración del Estado, conforme al acuerdo sobre el traspaso a la Comunidad Autónoma del País Vasco de las funciones y servicios en

dagozkien zereginak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzeko Erabakian, apirilaren 2ko 558/1998 Errege Dekretuan eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 27ko 80/1998 Dekretuan; Erkidego osorako erakundeei dagozkienak, berriz, beste hauetan: Autonomia Estatutuan, azaroaren 25eko 27/1983 Legean eta Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legean.

c) Transferitzen diren ondasunak, eskubideak eta obligazioak.

1.– Transferitzen zaizkion zereginak gauzatu ahal izateko, Bizkaiko Lurralde Historikoaren esku uzten dira honekin batera doan 1. zerrendako inbentario zehaztean agertzen diren ondasun higiezinak eta eskubideak eta barruan dauden gauza guztiak, inolako salbuespenik gabe ondasunei dagokienez. Bizkaiko Lurralde Historikoak, berriz, bere gain hartzen ditu ondasun higiezin horien gaineko ahalmen eta eskubide guztiak, titulartasuna izan ezin, hori Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren esku egongo baita aurrerantzean ere.

2.– Transferitutako higiezinetan edo lurretan Bizkaiko Lurralde Historikoak egiten dituen handitze lanak –kanpoko egitura aldatzen badute– edo eraikin berriak bere ondarean sartuko dira. Horretarako, Autonomia Erkidegoak behar diren neurriak hartuko ditu, indarrean dagoen legeria zibilarren eta hipotekei buruzkoaren arabera. Helburu horrekin berberarekin, Autonomia Erkidegoak hitzarmenak egin ahal izango ditu Estatuko Administrazioarekin. Hitzarmen horietan, gainera, gai hauek ere erabili ahal izango dira: Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ondasun higiezinak besterentzeko eta zergapetzeko prozedurei buruzko araudia, nahiz eta, horretarako, aldez aurretik Autonomia Erkidegoaren eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren adostasuna beharko den; transferitutako zerbitzuen esleipena eta zerbitzu horien eta oraindik transferituta ez daudenen arteko trukeak eta, oro har, bion intereseko guztiak.

3.– Aurreko puntuetan zehazten den araubidea iragankorra izango da, harik eta Gizarte Segurantzak IGGIari atxikita dituen ondasun higiezinaren titulartasun osoa Euskal Autonomia Erkidegoak eskuratzeko baldintzak sortzen diren arte. Une horretan titulartasuna transferitu egingo da.

4.– Transferentzia gauzatu ondorengo bi hilabetetan, altzariak, ekipoak eta inbentaria daitekeen materiala entregatu eta hartzeko aktak egingo dira.

5.– Transferentzia eraginkor bihurtzen denean, Bizkaiko Lurralde Historikoak bere gain hartuko ditu transferitutako zerbitzuen gaineko obligazioak, hau da, kontratuen, hitzarmenen eta bestelako egintza juridikoen ondorioz sortzen direnak.

d) Transferitutako zerbitzuei atxikitako langileak.

materia de asistencia y servicios sociales prestados por el I.S.M., tal y como se recoge en el Real Decreto 558/1998, de 2 de abril, y en el Decreto, del Gobierno Vasco 80/1998, de 27 de abril, como a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma, conforme a lo establecido en el Estatuto de Autonomía, la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, y la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales.

c) Bienes, derechos y obligaciones que se traspasan.

1.– Se traspasan al Territorio Histórico de Bizkaia, para la efectividad de las funciones que son objeto de la transferencia, los bienes inmuebles y derechos que se relacionan en el inventario detallado de la relación adjunta número 1, con todo lo que en ellos se halle, sin excepción de ningún tipo de bienes. El Territorio Histórico de Bizkaia asume todas las facultades y derechos que puedan recaer sobre dichos bienes inmuebles, excepto su titularidad, que continuará a nombre de la Tesorería General de la Seguridad Social.

2.– Las obras de nueva edificación, así como las de ampliación, que supongan modificación de la estructura externa, sobre inmuebles o terrenos transferidos, realizados por el Territorio Histórico de Bizkaia, se integrarán definitivamente en su patrimonio, arbitrándose a través de la Comunidad Autónoma las medidas oportunas para que, conforme a la legislación civil e hipotecaria vigentes, se haga efectiva la anterior finalidad. A tal efecto, podrán instrumentarse por medio de la Comunidad Autónoma la celebración de convenios con la Administración del Estado que, asimismo, podrán extenderse a la regulación de los procedimientos para la enajenación y gravamen de bienes inmuebles de titularidad de la Tesorería General de la Seguridad Social, que en todo caso requerirán del previo Acuerdo de la Comunidad Autónoma y Territorio Histórico de Bizkaia, así como las nuevas adscripciones y permutas entre los servicios transferidos y aquéllos que aún no hayan sido objeto de traspaso y, en general, alcanzar a cuanto convenga al interés mutuo.

3.– El régimen a que se refieren los números precedentes se configura como transitorio, hasta tanto se creen las condiciones para la asunción por la Comunidad Autónoma de la plena titularidad de bienes inmuebles de la Seguridad Social adscritos al I.S.M., en cuyo momento se procederá a su transferencia.

4.– En el plazo de dos meses desde la fecha de la efectividad de la transferencia, se formalizarán las correspondientes actas de entrega y recepción de mobiliario, equipo y material inventariable.

5.– A partir de la fecha de efectividad del traspaso, el Territorio Histórico de Bizkaia, asume las obligaciones correspondientes a los servicios traspasados, derivadas de contratos, Convenios y otros actos jurídicos.

d) Personal adscrito a los servicios que se traspasan.

Transferitutako zerbitzuei atxikitako langileak honen batera doan 2. zerrendan agertzen dira.

e) Aurrekontuen araubidea.

1.– Apirilaren 2ko 558/1998 Errege Dekretuaren Eranskineko E) puntua aplikatzearen ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoaren alde ateratzen den zenbatekotik, %2,22 Erkidego osorako erakundeentzat izango da; gainontzekoa, berriz, lurralde historikoentzat.

2.– Lurralde historiko bakoitzari dagokion kopurua zehazteko, foru aldundiei dagokien kopuru osoari zera aplikatuko zaio, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 22.8 artikuluan aipatzen den Legean (momentuan indarrean dagoenean) urte horretarako ezarritako ekarpen-koefizientea.

3.– Lurralde historiko bakoitzaren alde ateratzen den zenbatekoa kuota eta bestelako dirusarreraren bidez finantzatu dela joko da, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren ekimenez emango zaio foru aldundi bakoitzari, Eusko Jaurlaritzaren hileroko transferentzien bitartez, hamar egun naturaleko epean, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiko fondoak iristen direnentik kontatuta.

4.– Behin aurrekontu-ekitaldia likidatu eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aldeko baliabideak doitu ondoren, Eusko Jaurlaritzak likidazioa egingo du foru aldundiekin. Aipatutako doikuntza apirilaren 2ko 558/1998 Errege Dekretuaren Eranskineko E) idatz-zatiko 5. puntuan zehaztutako eran egingo da.

Likidazio-eragiketaren ondoriozko erregularizaziotik bakoitzari dagokion zatia behingoan gauzatuko da, ordainketa ondorengo epean bertan.

5.– Ordainketa ondorengo epean, Eusko Jaurlaritzak foru aldundien eskura jarriko ditu, halaber, bereganatutako zereginetarako IGGIaren aurtengo aurrekontu-ekitaldian onartu diren kreditu txertaketa eta gehikuntzetako partaidetzatik dagokien zatia.

f) Transferitzen diren zerbitzuei buruzko agiriak eta espedienteak.

Erabaki honek eragina hartzen duenetik, bi hilabete epea egongo da transferitutako zerbitzuei buruzko agiriak eta espedienteak entregatzeko. Izapidetzen ari diren espedienteak ekainaren 19ko 195/1984 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera ebatziko dira.

g) Transferentziaren eraginkortasun-data.

Hitzarmen hau onartzen duen Dekretua indarrean jartzen den eguna dena dela, transferentziek 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera izango dute eragina.

Erasota gera dadin egin dugu egiaztagiri hau Vitoria-Gasteizen, 2000ko abenduaren 14an.

El personal adscrito a los servicios que se traspasan se recoge en la relación adjunta número 2.

e) Régimen presupuestario.

1.– Del importe que resulte a favor de la Comunidad Autónoma del País Vasco por aplicación de lo recogido en el apartado E) del Anexo del Real Decreto 558/1998, de 2 de abril, se considera que el 2,22% de dicha cantidad corresponde a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y el resto a los Territorios Históricos.

2.– Para la determinación de la cantidad correspondiente a cada Territorio Histórico se aplicará, a la cifra global correspondiente a las Diputaciones Forales, el coeficiente de aportación que se fije para el año de que se trate en aplicación de la Ley, que se encuentre vigente, a la que se refiere el art. 22, octavo, de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre.

3.– El importe que resulte a favor de cada Territorio Histórico se considerará financiado por cuotas y otros ingresos, y se pondrá a disposición de cada Diputación Foral a instancia del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social mediante transferencias mensuales del Gobierno Vasco en el plazo de diez días naturales a partir de la recepción de los fondos procedentes de la Tesorería General de la Seguridad Social.

4.– Una vez liquidado el ejercicio presupuestario, y realizada la adecuación de los recursos a favor del País Vasco en los términos recogidos en el punto 5. del apartado E) del Anexo del Real Decreto 558/1998, de 2 de abril, el Gobierno Vasco efectuará la oportuna liquidación con las Diputaciones Forales.

La regularización resultante de las operaciones liquidatorias se hará efectiva de una sola vez en el plazo inmediatamente posterior al pago, en la parte que le sea imputable.

5.– Asimismo, el Gobierno Vasco pondrá a disposición de las Diputaciones Forales la parte que les corresponda de la participación en las ampliaciones e incorporaciones de créditos en las funciones asumidas aprobadas en el ejercicio corriente en el presupuesto del I.S.M., en el plazo inmediatamente posterior de pago.

f) Documentación y expedientes de los servicios que se traspasan.

La entrega de los documentos y expedientes de los servicios traspasados se realizará en el plazo de dos meses desde la efectividad del presente Acuerdo. La resolución de los expedientes que se hallen en tramitación se realizará de conformidad con lo previsto en el artículo 4.º del Decreto 195/1984, de 19 de junio.

g) Fecha de efectividad del traspaso.

Sin perjuicio de la entrada en vigor del Decreto aprobatorio del presente Acuerdo, los traspasos serán efectivos a partir del 1 de enero de 2001.

Y para que conste, expedimos la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 14 de diciembre de 2000.

1. zerrenda

IGGIari atxikitako ondasun higiezinetatik, Bizkaiko Lurralde Historikoari transferitutakoen zerrenda

Ident. zka.	Izena eta erabilera	Herria eta helbidea	Kokapena eta azalera	Titularra	Titulu juridikoa	Jatorri-entitatea
482006	Zaharren egoitza	Bermeo. Fraile Leku, 1	Beheko solairua eta 1.a. 482,00	Gizarte Segurantzza	Doako lagapena, 1991eko uztailaren 19a	Bermeoko arrantzaleen kofradia
481107	Itsas etxea	Elantxobe. Kaia, sin número	Beheko solairua eta 1.a 188,00	Gizarte Segurantzza	Doako lagapena, 1977ko uztailaren 17a	Elantxobeko arrantzaleen kofradia
484209	Itsas etxea	Ondarroa. Ibai-Ondo, 15	1. eta 2. solairuak. 621,20	Gizarte Segurantzza	Dohaintza, 1977ko abenduaren 1a	Santa Clara arrantzaleen kofradia

2. zerrenda

IGGIari atxikitako langileetatik, Bizkaiko Lurralde Historikora atxikitakoen izen-abizenak

I. Funtzionarioak

IZEN-ABIZENAK	N.A.N.	POSTUA	IZENDAPEN MOTA	EGOERA	BET. ERA	OINARRIZKO ORDAINSA- RIAK	OSAGARRIZKO ORDAINSA- RIAK	ORDAINSARIAK GUZTIRA	DESTINOA DUEN ZENTROA
Eizagirre Ostolaza, Belén	78.860.327	Zerbitzaria- garbitzailea	Karrerako funtzionar.	A	L	1.196.062	1.731.116	2.927.178	Bermeo
Imaz Beguiristain, M.ª Soledad	15.881.264	Gobernanta	Karrerako funtzionar.	A	L	1.274.266	1.800.158	3.074.424	Ondarroa
Badiola Erkiaga, Miren Izar	72.246.648	Zerbitzaria- garbitzailea	Karrerako funtzionar.	A	L	1.222.130	1.754.134	2.976.264	Ondarroa

II. Lan-kontratu finkodunak

IZEN-ABIZENAK	N.A.N.	POSTUA	IZENDAPEN MOTA	EGOE-RA	BET. ERA	OINARRIZ-KO ORDAINSA- RIAK	OSAGA-RRIZKO ORDAINSA- RIAK	ORDAINSA-RIAK GUZTIRA	DESTINOA DUEN ZENTROA
Arredondo Durán, Beatriz	16.040.137	Gobernanta	Bitartekoa	A	L	2.357.810	373.042	2.730.852	Santurtzi
Díaz del Pulgar, M. <sup>a</sup> Angeles	14.596.659	Ostatuko ordenantza	Lan-kontr. bitartekoa	A	L	2.357.810	321.960	2.679.770	Santurtzi
Olaso García, Rosario	16.037.838	Gizarte laguntzailea	Lan-kontr. finkoduna	A	L	3.471.440	23.826	3.495.266	Bilbao
Rodriguez Campo, M. <sup>a</sup> Salomé	12.741.208	Gizarte laguntzailea	Lan-kontr. finkoduna	A	L	3.394.720	23.296	3.418.016	Bilbao
Monroy Ferreiro, Inmaculada	11.927.919	Gizarte laguntzailea	Lan-kontr. finkoduna	A	L	3.471.440	23.826	3.495.266	Ondarroa
Montes Viñas, Concepción	35.291.322	Zerbitzaria- garbitzailea	Lan-kontr. finkoduna	A	L	2.552.802	325.290	2.878.092	Ondarroa
Maguregui Iriondo, Jon	30.566.685	I.E.ko orden. Ostatua	Lan-kontr. finkoduna	A	L	2.504.054	324.956	2.829.010	Ondarroa
Dañobeitia Zarate, Sabino	14.857.267	I.E.ko orden. Ostatua	Lan-kontr. finkoduna	A	L	2.504.054	324.956	2.829.010	Ondarroa
Tobalina Martínez, Luis M. <sup>a</sup>	11.927.826	I.E.ko orden. Ostatua	Lan-kontr. finkoduna	A	L	2.504.054	324.956	2.829.010	Santurtzi

Relación número 1

*Relación de bienes inmuebles adscritos al ISM objeto de traspaso al Territorio Histórico de Bizkaia.*

<i>N.º ident.</i>	<i>Nombre y uso</i>	<i>Localidad y dirección</i>	<i>Ubicación y superficie</i>	<i>Titular</i>	<i>Título jurídico</i>	<i>Entidad de origen</i>
482006	<i>Hogar del Pensionista</i>	<i>Bermeo. Fraile Leku, 1</i>	<i>Plantas baja y 1.ª. 482,00</i>	<i>Seguridad Social</i>	<i>Cesión gratuita, 19 de julio de 1991</i>	<i>Cofradía de Pescadores de Bermeo</i>
481107	<i>Casa del Mar</i>	<i>Elantxobe. Kaia, sin número</i>	<i>Plantas baja y 1.ª. 188,00</i>	<i>Seguridad Social</i>	<i>Cesión gratuita, 17 de julio de 1977</i>	<i>Cofradía de Pescadores de Elantxobe</i>
484209	<i>Casa del Mar</i>	<i>Ondarroa. Ibai-Ondo, 15</i>	<i>Plantas 1.ª y 2.ª. 621,20</i>	<i>Seguridad Social</i>	<i>Donación, 1 de diciembre de 1977</i>	<i>Cofradía de Pescadores de Santa Clara</i>

Relación número 2

*Relación nominativa de personal adscrito al ISM objeto de traspaso al Territorio Histórico de Bizkaia.*

*I. Personal Funcionario*

<i>APELLIDOS Y NOMBRE</i>	<i>D.N.I</i>	<i>PUESTO</i>	<i>CLASE DE NOMBRAMIENTO</i>	<i>SITUACIÓN</i>	<i>FP</i>	<i>RETRIBUCIONES BASICAS</i>	<i>RETRIBUCIONES COMPLEMENT.</i>	<i>RETRIBUCIONES TOTALES</i>	<i>CENTRO DE DESTINO</i>
<i>Eizagirre Ostolaza, Belén</i>	<i>78.860.327</i>	<i>Camarera-Limpiadora</i>	<i>Func. de carrera</i>	<i>A</i>	<i>C</i>	<i>1.196.062</i>	<i>1.731.116</i>	<i>2.927.178</i>	<i>Bermeo</i>
<i>Imaz Beguiristain, M.ª Soledad</i>	<i>15.881.264</i>	<i>Gobernanta</i>	<i>Func. de carrera</i>	<i>A</i>	<i>C</i>	<i>1.274.266</i>	<i>1.800.158</i>	<i>3.074.424</i>	<i>Ondarroa</i>
<i>Badiola Erkiaga, Miren Izar</i>	<i>72.246.648</i>	<i>Camarera-Limpadora</i>	<i>Func. de carrera</i>	<i>A</i>	<i>C</i>	<i>1.222.130</i>	<i>1.754.134</i>	<i>2.976.264</i>	<i>Ondarroa</i>



II. Personal Laboral fijo

APELLIDOS Y NOMBRE	D.N.I	PUESTO	CLASE DE NOMBRAMIENTO	SITUACIÓN	FP	RETRIBUCIONES BASICAS	RETRIBUCIONES COMPLEMENT.	RETRIBUCIONES TOTALES	CENTRO DE DESTINO
Arredondo Durán, Beatriz	6.040.137 1	Gobernanta	Interino	A	C	2.357.810	373.042	2.730.852	Santurce
Díaz del Pulgar, M.ª Angeles	14.596.659	Ordenanza de Hospedería	Laboral de interinidad	A	C	2.357.810	321.960	2.679.770	Santurce
Olaso García, Rosario	16.037.838	Asistenta Social	Laboral fijo	A	C	3.471.440	23.826	3.495.266	Bilbao
Rodríguez Campo, M.ª Salomé	12.741.208	Asistenta Social	Laboral fijo	A	C	3.394.720	23.296	3.418.016	Bilbao
Monroy Ferreiro, Inmaculada	11.927.919	Asistenta Social	Laboral fijo	A	C	3.471.440	23.826	3.495.266	Ondarroa
Montes Viñas, Concepción	35.291.322	Camarera-Limpiadora ISM	Laboral fijo	A	C	2.552.802	325.290	2.878.092	Ondarroa
Maguregui Iriondo, Jon	30.566.685	Orden.CM Hospedería	Laboral fijo	A	C	2.504.054	324.956	2.829.010	Ondarroa
Dañobeitia Zarate, Sabino	14.857.267	Orden.CM Hospedería	Laboral fijo	A	C	2.504.054	324.956	2.829.010	Ondarroa
Tobalina Martínez, Luis M.ª	11.927.826	Orden.CM Hospedería	Laboral fijo	A	C	2.504.054	324.956	2.829.010	Santurce